

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultateak SUMMA programa martxan jarri du, EROSKIko talentuaren garapena bultzatzeko.

2016/03/10

SUMMA programa, Eroskiko talentuaren kudeaketarako goi-mailako formakuntza-prozesu bat da, eta bere helburu nagusia Eroski-ko proiektu estrategikoen kudeaketa eta lidergorako beharrezkoak diren trebetasunak garatzea da parte hartzaileen artean, ingurune ezezagune eta testuinguru globalak kontutan hartuz.

Programa bi fasetan antolatu da: Formakuntza tronkala eta Formakuntza Esperientziala. Fase horietako bakoitzean, programak hiru ikaskuntza-arlo eskaintzen ditu: Formakuntza, Interakzioa eta Sorkuntza.

Formakuntzan funtsezko ezagutzak lortuko dira, parte hartzaileen artean proiektuak lideratzeko gaitasunak bultzatzeko. Bestalde, Interakzioaren bitartez programan landutako ezagutzak sendotzeko espazioen aktibatzea emango da, horrela parte hartzaileak erakundearen arlo estrategikoetara hurbiltzeko aukera izango dute. Azkenik, Sorkuntza esparrutik parte hartzaileentzat espazio bat eskaintzen da non Eroskin eragina izan dezaketen proposamenak garatu ditzaten.

